

Militantziatik Bruselara doan hariak janzten gaitu

IRIA EPALZA MARKOARTU

Orain Errepublikak koalizioko zerrendakidea
eta Europar Parlamentuko aholkulari ohia

Igaro berri ditugun Europar Hauteskunde hauek ez dute soilik Brusela eta Estrasburgon biltzen den Parlamentua 5 urtetarako jantzi, baizik eta Europako estatu eta herrien gorpuzkera politikoa neurtzeko ere balio dute. Emaitzak euskal betaurrekoekin aztertzea funtsezkoa da euskal jendarteak dituen erronkei orratza sartu eta etorkizuneko soinekoa josteko. Balio bezate 5 puntu hauek gogoeta horren patroiz:

1. Europar Parlamentua –are- eskuinerago joan da. Europar Alderdi Popularrak indarra hartu du, eta **Migrazioa, segurtasuna edo larrialdi klimatikoa** bezalako gaietan muturreko eskuinaren diskurtsotik edan du.
2. Ultraeskuina gogor sartu da, baina eragin eskasarekin. Europar Batzordea kontserbadore eta sozialistek gobernatuko dute, Liberalen eta Berde zein Aliantza Libre Europarraren laguntzaz. Gehiengoak osatzeko **gako izan gaitzke estatugabeko nazioetako ordezkariak**, eta beraz, Europar agendan eragiteko ere.
3. Euskal Herria Bilduk **legegintzaldi osorako eskainua** lortu du; urte anitzeko finantza-esparru berria, nekazaritza-politika bateratu berria eta Europa berrindustrializatzeko planak eztabaidatuko diren legealdia, hain zuzen.
4. Orain Errepublikak koalizioa –Esquerra, Bloque Nacionalista Galego eta Ara Més- Estatuko laugarren indar gisa kokatu da. Euskaldun, galiziar eta katalanen arteko elkarlanaren fruitu eta ezkerreko politika subiranistak aurrera eramatearen ondorioa. Europar Parlamentuan badira estatu gabeko beste hainbat ordezkari ere, zeintzuekin **zubiak eraiki eta bat eginik** gure agenda mahai gaineratu dezakegun.

5. Armagintzaren aurrean, bakea aldarrikatzea. Faxismoari eskubide sozialak zabaltzen aurre egin. Estatuaren hegemonia itxiari Herrien Europak eskaintzen duen aberastasuna erakutsi. Horiek egin gaituzte ultraeskuina eta antisistemaren aurrean, **Herri izaeraz erantzun duen eskualde bakarrenetarikoa Europan.**

6. Batzuek esango dute gutxierekin konformatzen garela eurodiputatu bakarra lortu dugulako pozik egonda. Baina zein erratuak dauden horiek! Zenbat militante feminismoa, euskalgintza edo aniztasunetik eragiten! Zenbat zinegotzi eta alkate udaletatik pertsonak erdigunean jarri! Zenbat batzarkide eta parlamentari bizitza erraztu eta duintzen duten erreformak defendatzen! Zenbat senatari eta kongresukide gure aitortza borrokatzen! Ez da gutxi, ez da txiki. Gertutik urrunera borroka eta ilusio berdinak barreiatzen dituen haria gara, eta sekulako jantzia josten gabiltza. Bejondeigula, eta jarrai dezagun harilkatzen!

2024ko Uztaila